




Euskal ekonomiaren termometroa 99,2an kokatu da

Euskadiko ekonomiaren termometroa




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza

Euskal ekonomiaren termometroak 99,2ko balioa izan zuen maiztzean, bost hamarren jaitsi zen eta hazkunde leunaren eremuan mantendu zen. Industriak profil ahula mantentzen du, nazioarteko eskari eskasagatik. Zerbitzuek eta eraikuntzak hazkundeari eusten diote, nahiz eta azken horren hazkundeak bizitasun apur bat galdu duen. Ekonomia barne eskariari esker hazten da, kontsumoaren sendotasunean eta maila altuetan jarraitzen duen inbertsioan oinarrituta.

Etxebizitzaren salneurria %10,3 garestitu zen

Etxebizitzaren prezioa Euskadin




INEk argitaratutako azken datuen arabera, **2026ko lehen hiruhilekoan etxebizitzaren prezioa %10,3 igo zen Euskadin, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.** Horrela, etxebizitzaren prezioek gora egiten jarraitu dute, bi digituko igoerekin 2024ko azken hiruhilekotik, eta finantza krisiaren aurreko mailak gainditu dituzte jadanik.



Apirilean, 316 enpresa eratu ziren Euskadin

Euskadin eratutako enpresak

Urte bakoitzeko apirila




Iturria: INE.

INEk argitaratu duenez, apirilean 316 merkataritza sozietate eratu ziren Euskadin, 2025eko hilabete berean baino %8,4 gutxiago. Hala ere, serie historiko osoko hirugarren apirilik onena da hau. Ordaindutako kapitala apenas aldatu zen iazkoaren aldean (-%0,3), eta 15,2 milioi euro ingurukoa izan zen.

Inflazioa %3,2an mantendu zen maiatzean

Kontsumoko prezioen indizea (KPI)

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

Inflazioa urte arteko %3,2an mantendu zen maiatzean Euskadin Energiaren eta elikagaien garestitze txikiagoa zerbitzuen gorakadak konpentsatu zuen (%4,0). Ondorioz, hondar inflazioa apirilean erregistratutako %5,1etik %4,4ra moteldu zen bitartean, azpiko inflazioa hamarren bat igo zen eta urte arteko %2,9era heldu zen.